

2016-07-19ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko uztailaren 19an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gai-zerrenda aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa. Jarraian, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/119 ETA 2016/135 DEKRETUA BITARTEAN.

Gai honekin hasi aurretik, Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du idazkariari zergatik ez dagoen ekaineko akta gaien artean, eta arazorik egon den. Idazkariak erantzun dio ez duela denborarik izan akta amaitzeko.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 119. eta 2016ko 135. zenbakia bitartekoak.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du udalbatza batzuen grabazioak eskatu zituela, eta idazkariak esan ziola ez zegoela arazo legalik. Aitzitik, orain, alkatearen dekretuen artean, ikusi du gai horri buruzko txosten teknikoa eskatu zaiola idazkariari, eta ez du horren arrazoia ulertzen.

Alkateak erantzun dio txosten juridikoa eskatu duela, eta aste honetan emango zaizkiola eskatutako grabazioak.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du ez daukatela beste dekretuekin arazorik, baina dekretu horrekin ez daudela ados, pentsatzen dutelako Irura bezalako herri txiki batean ez dela eskatu txosten juridikorik behar horrengatik.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BIGARREN GAIA

EREIN 2016 PROGRAMARAKO IRURAKO UDALAK ESKATUKO DUEN DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazi du gai hau joan den udalbatzan landu gabe geratu zela, eta Hirigintzako Batzorde Informatiboa egin dela eta gai azalpenak eman direla.

Alkateak Dekretu hau onartu du:

«Argitaratu da 2016ko ekitaldirako Agindua, 2016ko maiatzaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duena.

Irurako Udalak proiektu bat sartu nahi du programa horretan: San Migel Plaza 6ko eraikina berritzeko lanak, haur-eskola berria.

Proiektuaren aurrekontua 201.586 eurokoa izango da.

Hori ikusita, eta indarrean dagoen legediak onartzen dizkidan eskumenez baliatuta,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Proiektu hori aurrera eramatea onartzea.

Bigarrena.- Udalbatzari akordio hori jakinaraztea, egingo duen lehenengo bileran, erabakia berresteko, hala badagokio.»

Eta Udalbatzak berretsi du, aldeko 5 botorekin (PNV/EAJ) eta 3 abstentziorekin (EH Bildu).

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du haren taldea prozedurarengatik abstenitu dela: ez da oso garbia izan, azken momentuan izan baitute gai horren garrantzitsu baten berri udal-bilkura batean, eta aurretik azalpenak eman gabe eta haiei kontsultatu gabe. Erantsi dute zalantza dutela ondorengo lau urteetan gai guztiak horrela izango diren. Izan ere, badakite tabernariekin bildu direla, baina ez diela inork azalpenik eman. Bestalde, udal-gobernuak aurrerapausoak eman ditu aurreko zahar-etxearekin, baina ez dakite azkenean zer proposatu den lokalari dagokionez.

Alkateak erantzun dio batzorde batean hitz egingo dela horri buruz.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du haren udal-taldeak bilera horietara bertaratu behar dela, haiek ere tartean daudelako.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du normala iruditzen zaiela gauza txikiak aurretik ez komentatzea, baina gai garrantzitsuetan parte hartu behar dutela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak alkateari galdetu dio hurrengo bileretara gonbidatuko dituzten ala ez. Alkateak erantzun dio batzordeetarako dei egingo zaiela, jakina.

Jose Ignacio Imaz, adierazi du ez dutela argi zer onartu behar den: diru-laguntza ala proiektua. Alkateak erantzun dio diru-laguntza onartu behar dutela.

Jose Ignacio Imazek galdetu du alkateak argi daukan haurtzaindegi berria eraikin horretan finkatu behar den. Alkateak erantzun dio proiektua ez dela behin betikoa, eta diru-laguntza eskatzeko egin dela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du Bildu Taldea ez dagoela diru-laguntza eskatzearen aurka, ezta han haurtzaindegia jartzearen aurka ere, baina ez daudela ados udaleko gaien berri kanpotik izatearekin. Oraingo gobernu-taldeak, azken lau urteotan, inposizioa baliatu du lelotzat, eta ziurtatu dute haiek gardentasuna ekarriko zutela. Alabaina, orain, horma batekin egin dute topo: azalpenak batzordeetan emango zaizkie, baina erabaki ondoren. Haiek aurretik ere parte hartu nahi dute, eragile gisa. Etorkizuneko haurtzaindegiko lokala denon artean finkatu nahi dute, bai eta horrekin lotuta dagoen lehengo zahar-etxea.

Haurtzaindegiko lokalari buruz, udal-teknikariek ez zeukaten inongo berririk, ezta kultura-zinegotziak ere, eta galdetu du zenbait pertsonen artean hartzen ote diren erabakiak. Erantsi du hori ez dela funtzionatzeko modura.

Marta Castrillo zinegotziak galdetu du zergatik esaten duen kultura-zinegotziak ez zuela haurtzaindegiko proiektuari berririk, eta galdetu dio nork esan zion hori.

Jose Ignacio Imaz erantzun dio kultura-batzorde batera bertaratu zirenek (teknikariek eta zinegotziek) gai horri buruz hitz egin zutela, eta teknikari batek zinegotziari galdetu ziola haurtzaindegi berria antzinako mediku-etxean kokatu behar zen, eta zinegotziak erantzun zion ez zekiela ezer.

Bestalde, Jose Ignacio Imaz zinegotziak eskatu du aktan argi jasotzea prozedurarengatik abstenitu direla, eta ez daudela proiektuaren aurka (hau da, haurtzaindegiaren lokal berria antzinako mediku-etxean jartzea).

Alkateak ere adierazi du azken astean proiektuari buruzko azalpen guztiak eman dizkiotela Mikel Iturbe zinegotziari.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 1. ALDAKETA ZEHATZAREN BEHIN BETIKO ONARPENA JAKINARAZTEA.

Hau jakinarazi da:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2016ko ekainaren 21eko batzarraldian, hau erabaki duela:

Behin betiko onartzea 2016ko apirilean idatzitako Irurako Katategi Bailara Areari dagokion Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 1. Aldaketa zehatza.

Gainera, Aldaketaren eduki osoa 2016ko uztailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN GAIA

28 KANALAREN DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gaur iritsi da dokumentazioa, eta aho batez erabaki da gerorako uztea, berriz ere.

BOSGARREN GAIA

KONTU HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Idazkari-Kontu hartzailearen txosten hau aurkeztu da:

ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA 2016ko EKITALDIAN.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, batez besteko epea kontzeptua (OBE) txertatu du. Kontzeptu horrek jasotzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela, Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute. Atxikita dauden orrietan, Irurako Udalak 2016ko hiruhileko bakoitzean izandako ordainketa-epari buruzko txostenen berri ematen dizuet.

Hona hemen laburpena:

- 1. Hiruhilekoko Epea: 1,57 egun.
- 2. Hiruhilekoko Epea: 8,68 egun.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

SEIGARREN GAIA

GALDE-ESKEAK.-

Gai hauek jorratu dituzte:

a) Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du Udalbiltza Irurako Udalarekin idazki bidez harremanetan jarri den, udal-taldeekin bilera egiteko. Alkateak erantzun dio Udalbiltzaren idazkia iritsi dela, eta talde guztiei banatuko zaiela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu Udaltzarekin bilera egiteko asmorik ez dagoen. Alkateak erantzun dio denek dakitela kontua nola geratu zen: Irurako Udalak ez dio ekarpenik emango.

b) Publikoaren artean dagoen pertsona batek adierazi du ados dagoela hartzaindegia antzinako mediku-etxean kokatzearekin, eta orain momentu ona dela udalak etorkizunean zer zerbitzu emango dituen pentsatzeko, eta, horretarako, partaidetza-prozesua antola daitekeela alderdi politikoeekin eta jendearekin.

Halaber, aipatu du herriko jai askotan (Iruña, etab.) bortxaketa sexualak gertatu direla, eta Irurak ere berezko historia duela eta azken garaian hiru eraso izan direla. Erantsi du Tolosan izan dela horien aurkako ekimenak antolatzen dituen elkartearekin biltzeko, eta «brigada moreak» ekimenaren berri eman diotela. Ekimen horren bidez, neskei etxeraino laguntzen diete boluntario batzuek, eta prest daudela Irurara etortzeko. Villabonaren kasuan, jai-egitarauan txertatu dute ekimena, eta bertan jarri dute elkartearen telefono-zenbakia ere. Adierazi du komenigarria dela Udalak edo ikastolak gai hori jorratzea, eta herritarrekin eta ikastolarekin bilera irekia egitea.

Alkatetzak erantzun dio ertzaintza ere jo eta ke dabilela gai horretan, eta hurrengo jai-batzordean gai hori landuko dela.

Alkateak azaldu du, hartzaindegiaren lokalari dagokionez, zerbitzuaren langileekin hitz egin zuela, eta haiek ezan ziotela hobe zela zerbitzua behe-solairuan jartzea, igogailurik edo eskailerarik erabili behar ez izateko.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du hobe dela horren moduko gai garrantzitsuak bi talderen artean kudeatzea. Aurreko legealdian Bildu izan zen gobernuan, eta legealdi honetan, berriz, EAJ/PNV. Agian, lau urte barru berriro Bildu izango da berriz ere, eta komeni da gai horretan alderdi bakoitzak aldaketak egiten ez ibiltzea.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du zergatik erabaki den hartzaindegiari buruz lehenago, eta ez ludotekari buruz. Alkateak erantzun dio diru-laguntza atera zelako hartu zela erabaki hori.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:05ean eman du amaitutzat bilera. Nik, idazkari naizen aldetik, bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA